

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

9f626cf82e718e092c7d4965beeced3725b5eb23557a0f72b81e064de04b7dc4

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2025EKO APIRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2025.04.30

Tolosako Udaletxean, 2025eko apirilaren hogeita hamarrean, 16:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeke, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)
Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)
Josune Sanz Vidal(EH BILDU)
Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)
Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)
Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)
Javier Zabala Sastre(EAJ-PNV)
Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)
Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Ez bertaratutako zinegotzia:

Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Udal idazkaria:

Sara Berasategui Fuertes

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2025eko martxoaren 27ko ohiko osoko bilkurakoa.
2. Onartzea prezio publikoen aldaketa.
3. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.
4. 01/2025 kreditu-aldaketaren berri ematea, kreditu txertaketan modalitatekoa.
5. 02/2025 kreditu-aldaketaren berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatekoa.
6. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2025EKO MARTXOAREN 27KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA PREZIO PUBLIKOEN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko apirilaren 16ko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“LEHENA.- 1989ko irailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak prezio publikoen ordenantza onartu zuela eta 2024ko abenduaren 23an, Ohiko Osoko Bilkurak, 2023-2024 ikasturteko prezio publikoen aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- Hainbat sailek musika eskola, kultur tailerrak eta euskaltegien prezio publikoen ondorengo eranskinak aldatzea proposatu dituztela:

• 3.1.6 ERANSKINA: MUSIKA ESKOLA

Lehena.- Musika eskolako prezio publikoak %3,23 igotzea proposatzen da, hau da, otsaileko Hego Euskal Herriko batz besteko KPIa. Taula honela geratuko litzateke:

	2024-2025	2025-2026
1. zikloa	208,10 €	214,80 €
2. zikloa	617,40 €	637,35 €
2. zikloa b*	411,80 €	425,10 €
3. zikloa	746,10 €	770,20 €
3. zikloa b *	516,95 €	533,65 €
4. zikloa		
a) Musika taldea	104,05 €	107,40 €
b) instrumentua + musika taldea	411,80 €	425,10 €
Ikasle errefortzatuak	953,10 €	983,90 €
Ikasgai teorikoak	208,10 €	214,80 €
Bigarren instrumentua	208,10 €	214,80 €

b* ikasketak gaindituta dituztenentzat

Bigarrena. - Gaur egun, baja eskaeren aurrean, hau zegoen aurreikusita:

“Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoia, prezio publikoaren %20 ez da itzuliko.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, musika ikasketak jarraitzeko ezintasun larria duela adieraziz.*
- Haurdunaldia, medikuak baloratutako arriskutasuna ikusita.*
- Amatasun edo aitatasun baja.*
- Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada*
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...) zein pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.*

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epeak:

- 1. kuotaren itzulpena ikasturtea hasi aurretik eskatu beharko da.*
- 2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera: urriaren 15a eta urtarrilaren 15a*

Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klasebat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.

Matrikularen lehen ordainketa osoa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoia Udal Musika Eskolari egotz dakiokenean.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Udal Musika Eskolako Zuzendaritzak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ezproposatuz, eta Alkateak ebatziko ditu.”

Puntu hori aldatzea proposatzen da. Aurreikusitako arrazoi baten barruan badaude, kuota proportzionalki hainbanatuko da, hilabeteka (gutxienez %20 izango da). Aurreikusitako arrazoi baten barruan ez badaude, kuota osoa ordaindu beharko dute. Salbuespen gisa, eskola hasi eta lehen bi asteetan baja eskatzen badute, arrazoi baten barruan egon gabe, %20a ordaindu beharko dute.

Honela geratuko da artikulua:

“3.2. Ikasleak baja eskatzen badu beti ere artikulua honetan adierazitako arrazoi baten bidez, ikastaroaren kuota osoa hilabeteka hainbanatuko da. Ikasleak baja eskatzen den hilabetea ere ordaindu beharko du.

Ikasleak baja eskatzeko arrazoiak:

- *Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, ikasketak jarraitzeko ezintasun larria duela adieraziz.*
- *Haurdunaldia, medikuak baloratutako arriskutasuna ikusita.*
- *Amatasun edo aitatasun baja.*
- *Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada*
- *Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...) zein pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.*

Inongo kasutan ez da itzuliko kuotaren zenbateko osoaren % 20a.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Musika Eskolako Zuzendaritzak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta Alkateak ebaztiko ditu.

3.3 Matrikula baliogabetzeko eska daiteke eskola-eskolen lehenengo bi asteetan, inolako arrazoirik justifikatu gabe. Kasu horietan, ikasleak matrikularen zenbatekoaren % 20 ordaindu beharko du.

3.4 Ikasleak baja eskatzen badu, eskola eskolen lehenengo bi aste pasa ondoren, artikuluko honetan aurreikusitako arrazoirik gabe, ikasleak kuotaren zenbateko osoa ordaindu beharko du."

Hirugarrena.- Gaur egun ordainketa epeak ondorengoak ziren:

"3. artikulua.- Matrikularen zenbateko honela ordainduko da:

a) Aurreko urteetako ikasleak, %60 matrikula egiteko unean, edo berritze automatikoarekin batera, uztailean. (1. Kuota)

Ikasle berriak eta bakanteen zain dauden ikasleak, aldiz, azaroaren 1etik 15era.b) %20 abenduaren 1etik 15era (2. Kuota

c) %20 otsailaren 15etik 28ra (3. Kuota)"

Ordainketa epeak aldatzea proposatzen da:

"a) %50: Aurreko urteetako ikasleak, matrikula egiteko unean, edo berritze automatikoarekin batera, uztailearen 15tik 30era. (1. Kuota)

Ikasle berriak eta bakanteen zain dauden ikasleak, aldiz, azaroaren 1etik 15era.

b) %50 otsailaren 1etik 15era (2. kuota)"

Laugarrena.- Dirusarreraren arabera, prezio murrizketa batzuk daude. Dirusarreraren kopurua urtero aldatzen ez egoteko, LGSri (gutxieneko soldata) erreferentzia egitea proposatzen da:

-	BIZIKIDETZA UNITATE OSOKO DIRUSARRERAK URTEAN			
Bizikidetza unitateko kide kopurua / Número de miembros de la unidad convencional	0-LGS	LGS -1,2 *LGS	1,2 *LGS - 1,4 *LGS	1,4 *LGS - 1,55 *LGS
1-2	%80	%60	%50	%0
3	%90	%70	%60	%25
4 o más	%95	%90	%90	%60

• 3.1.7 ERANSKINA: KULTUR TAILERRAK

Lehena.- Kultur tailerretako prezio publikoak %3,23 igotzea proposatzen da, hau da, otsaileko Hego Euskal Herriko batz besteko KPIa. Taula honela geratuko litzateke:

	2024-2025	2025-2026
Pintura ikastaroa. 14 urtez gorakoak	213,65	220,55
Eskulanak. 6-14 urte bitartekoak	157,20	162,25
Zeramika ikastaroa urteko	213,65	220,55
Antzerki ikasturtea	190,40	196,55
Argazkigintza (100 ordu)	256,80	265,10
Argazkigintza (80 ordu)	205,45	212,10
Argazkigintza (60 ordu)	154,10	159,05
Balleta	162,70	167,95
Baleta aurreratua	222,50	229,70
Balleta puntak	60,90	62,85
Dantza garaikidea	222,50	229,70
Ehoziak eta patchwork	213,65	220,55

Bigarrena.- Gaur egun, baja eskaeren aurrean, hau zegoen aurreikusita:

“6.- Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoia, prezio publikoaren %20 ez da itzuliko. Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, eskolara joateko ezintasun larria duela adieraziz*
- Haurdunaldia, medikuaren txostenak erabateko atsedena hartu behar duela baldin badio*
- Amatasuna*
- Ikasketa arautu edota homologatuaren derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada*
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.*
- Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klase bat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.*

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epea: urtarrilak 15.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Kultura Zerbitzuko zuzendariak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta Alkateak ebatziko ditu

Matrikularen prezio osoa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoia Tolosako Udalari egotz dakiokeenean.”

Puntu hori aldatzea proposatzen da. Aurreikusitako arrazoi baten barruan badaude, kuota proportzionalki hainbanatuko da, hilabeteka (gutxienez %20 izango da).

Aurreikusitako arrazoi baten barruan ez badaude, kuota osoa ordaindu beharko dute. Salbuespen gisa, eskola hasi eta lehen bi asteetan baja eskatzen badute, arrazoi baten barruan egon gabe, %20a ordaindu beharko dute.

Honela geratuko da artikulua:

“Ikasleak baja eskatzen badu beti ere artikulua honetan adierazitako arrazoi baten batengatik, ikastaroaren kuota osoa hilabeteka hainbanatuko da. Ikasleak baja eskatzen den hilabetea ere ordaindu beharko du.

Ikasleak baja eskatzeko arrazoiak:

- *Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, ikasketak jarraitzeko ezintasun larria duela adieraziz.*
- *Haurdunaldia, medikuak baloratutako arriskutasuna ikusita.*
- *Amatasun edo aitatasun baja.*
- *Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada*
- *Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...) zein pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.*

Inongo kasutan ez da itzuliko kuotaren zenbateko osoaren % 20a.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Kultura Zerbitzuko zuzendariak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatzu, eta Alkateak ebatziko ditu.

Matrikula baliogabetzeko eska daiteke eskolako lehenengo bi asteetan, inolako arrazoirik justifikatu gabe. Kasu horietan, ikasleak matrikularen zenbatekoaren % 20 ordaindu beharko du.

Ikasleak baja eskatzen badu, eskolako lehenengo bi aste pasa ondoren, artikulua honetan aurreikusitako arrazoirik gabe, ikasleak kuotaren zenbateko osoa ordaindu beharko du."

Hirugarrena.- Ondorengo artikulua txertatzea proposatzen da: "Udalak eranskinetako taulan aurreikusitako ikastaroak eskainiko ditu. Aurreikusitako ikastaroaren iraupena aldatzen bada, tarifa proportzionalki hainbanatuko da."

Laugarrena.- Dirusarreraren arabera, prezio murrizketa batzuk daude. Dirusarreraren kopurua urtero aldatzen ez egoteko, LGSri (gutxieneko soldata) erreferentzia egitea proposatzen da:

-	BIZIKIDETZA UNITATE OSOKO DIRUSARRERAK URTEAN			
Bizikidetza unitateko kide kopurua / Número de miembros de la unidad convencional	0-LGS	LGS -1,2 *LGS	1,2 *LGS - 1,4 *LGS	1,4 *LGS - 1,55 *LGS
1-2	%80	%60	%50	%0
3	%90	%70	%60	%25
4 o más	%95	%90	%90	%60

• **3.1.8 ERANSKINA: EUSKALTEGIA**

Lehenena.- Euskaltegiko prezio publikoak %3,23 igotzea proposatzen da, hau da, otsaileko Hego Euskal Herriko batz besteko KPIa.

Bestalde, Euskara eta Hezkuntza Sailaren proposamenean oinarrituz, aparteko tarifa sortzea (%50 handiagoa) proposatzen da C2 mailarako, bai aurrez aurreko taldeetan, bai autoikaskuntzan.

Taula honela geratuko litzateke:

	2024 / 2025	2025 / 2026
Aurrez aurreko taldeak (C2 izan ezik)	1,35 €/orduko	1,39 €/orduko
Aurrez aurreko taldeak C2		2,09 €/orduko
Autoikaskuntza taldeak (C2 izan ezik)	2,42 €/orduko	2,50 €/orduko
Autoikaskuntza		2,63 €/orduko
Jardun bikoia	1,89 €/orduko	1,95 €/orduko
Enpresei eskainitako ikastaroak	71 €/orduko 1,60 €/km	73 €/orduko 1,65 €/km

Bigarrena.- Tolosarrak erroldatuta ez dauden ikasleen kasuan, ordaindu beharreko kopurua bi epetan ordaintzeko aukera dute gaur egun: 2/3 azaroaren 15a baino lehen eta 1/3 abenduaren 15a baino lehen. Matrikula ordaintzeko epea bakarra izatea proposatzen da: azaroaren 15a baino lehen.

Hirugarrena.- Gaur egun, baja eskaeren aurrean, hau zegoen aurreikusita:

“4. Baja eskatzeko eskubidea:

Jarraian aipatzen direnei buruzko erabakia alkatea edo zinegotzi delegatuari dagokio, horretarako Euskara Teknikariak proposamena egingo du eta Kontuhartzaitzak dagokion txostena egingo du.

4.1. Nahitaezko arrazoiaren* bategatik eraginda ikasleren bat baja izango balitz ikasturtean zehar, bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango du, betiere:

- Baja hartu arte %85eko asistentzia bete izan badu.
- Errendimendu egokia izan badu.

Horrelako kasuetan euskaltegiko irakasleak egindako eta euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten baten bidez egiaztatuko da baja den ikasleak %85eko asistentzia eta errendimendu egokia izan duela.

Nahitaezko arrazoiak*:

- Eskolara joateko ezintasuna, betiere horixe adierazten duen medikuaren egiaztagiria badago.
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), betiere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.”

Puntu hori aldatzea proposatzen da. Aurreikusitako arrazoiaren baten barruan badaude, kuota proportzionalki hainbanatuko da, orduka (gutxienez %20 izango da). Aurreikusitako arrazoiaren barruan ez badaude, kuota osoa ordaindu beharko dute. Salbuespen gisa, eskola hasi eta lehen bi asteetan baja eskatzen badute, arrazoiaren barruan egon gabe, %20a ordaindu beharko dute.

Artikulua honela geratuko da:

“Jarraian aipatzen direnei buruzko erabakia alkatea edo zinegotzi delegatuari dagokio, horretarako Euskara Teknikariak proposamena egingo du eta Kontuhartzaitzak dagokion txostena egingo du.

4.1. Nahitaezko arrazoiaren* bategatik eraginda ikasleren bat baja izango balitz ikasturtean zehar, urteko kuota orduka hainbanatuko da, betiere:

- Baja hartu arte %85eko asistentzia bete izan badu.
- Errendimendu egokia izan badu.

Horrelako kasuetan euskaltegiko irakasleak egindako eta euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten baten bidez egiaztatuko da baja den ikasleak %85eko asistentzia eta errendimendu egokia izan duela.

Inongo kasutan ez da itzuliko kuotaren zenbateko osoaren % 20a.

Matrikula baliogabetzeko eska daiteke eskolako lehenengo bi asteetan, inolako arrazoirik justifikatu gabe. Kasu horietan, ikasleak matrikularen zenbatekoaren % 20 ordaindu beharko du.

Ikasleak baja eskatzen badu, eskolako lehenengo bi aste pasa ondoren, artikuluko honetan aurreikusitako arrazoirik gabe, ikasleak kuotaren zenbateko osoa ordaindu beharko du.

Nahitaezko arrazoiak*:

- Eskolara joateko ezintasuna, betiere horixe adierazten duen medikuaren egiaztagiria badago.
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), betiere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.”

Laugarrena.-HABEren hitzarmenpeko ikasleei dagokienez, ordenantzetan horren xehe ez zehaztea ordainketa-epeak, baizik eta HABEren ebazpenari egitea aipamena.

Gaur egun, 3.6 artikulua dio:

“3.6. Aitzol Euskaltegian dauden HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikulen ordainketa:

3.6.1. HABEk IVAP, IRALE, JUSTIZIA, LANBIDE eta OSAKIDETZAekin hitzarmena dauka bertako langileek euskara ikas dezaten inolako gasturik izan gabe. Hitzarmen horren arabera, herri erakundeetako langileen matrikula gastuak ordaintzeaz gain, euskalduntze-prozesuan euskaltegiek asistentzia datuak bildu eta HABEra bidaltzeagatik zerbitzua ere finantzatzen da.

HABEk hitzarmenpeko ikasleen matrikulak eta kudeaketa gastuak ordaintzeko lau epe ezartzen ditu:

1. ordainketa: abenduan (urritik ekainera ikastaroetan hasi diren ikasleen matrikulen %30a).
2. ordainketa: otsailean (urritik ekainera ikastaroetan izena eman duten ikasleen matrikulen %70a).
3. ordainketa: apirilean (urtarriletik ekainera ikastaroetan egon diren Segurtasun Saileko ikasleen matrikulen %100a).

4. ordainketa: urrian (udako ikastaroetan egon diren administrazioetako ikasle solteen matrikulak eta ikasturte osoaren kitapena/kudeaketa gastuak).

Ikasle guztien aukera-eskubidea bermatzeko asmoz, HABEk urtero ikastaro mota bakoitzaren prezio publikoak ezartzen ditu agindu baten bidez. Agindu horretan HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikula eta kudeaketa gastuengatiko prezio publikoen tarifak zehazten dira. Udalak goian aipatutako ordainketa epeen arabera dagozkion ordainagiriak sortu behar ditu eta HABEra bidali ordainketa egin dezaten

3.6.2. HABEko hitzarmenpeko ikasleen materiala ikasle bakoitzak ordainduko du ikasturte hasieran.”

Artikulua honela geratuko litzateke:

“3.6. Aitzol Euskaltegian dauden HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikulen ordainketa:

3.6.1. HABEk IVAP, IRALE, JUSTIZIA, LANBIDE eta OSAKIDETZAekin hitzarmena dauka bertako langileek euskara ikas dezaten inolako gasturik izan gabe. Hitzarmen horren arabera, herri erakundeetako langileen matrikula gastuak ordaintzeaz gain, euskalduntze-prozesuan euskaltegiek asistentzia datuak bildu eta HABEra bidaltzeagatiko zerbitzua ere finantzatzen da.

HABEk hitzarmenpeko ikasleen matrikulak eta kudeaketa gastuak ordaintzeko HABEk onartutako epeen arabera ezarriko da.

Ikasle guztien aukera-eskubidea bermatzeko asmoz, HABEk urtero ikastaro mota bakoitzaren prezio publikoak ezartzen ditu agindu baten bidez. Agindu horretan HABEren hitzarmenpeko ikasleen matrikula eta kudeaketa gastuengatiko prezio publikoen tarifak zehazten dira. Udalak HABEk ezarritako ordainketa epeen arabera dagozkion ordainagiriak sortu behar ditu eta HABEra bidali ordainketa egin dezaten.”

Bosgarrena.- Ordenantzaren 7. Artikuluak hau dio: “7. Taulan azaltzen diren ikastaroak eskainiko dira, beti ere, aldezturik HABEk onartutakoak badira.” Euskaltegiaren eskola guztiak dira HABEk onartuak, baina, edozein kasutan, ordenantza fiskalen xedetik kanpokoa izan daiteke ikastaroei baldintza hori ezartzea. Ondorioz, 7. artikulua kentzea proposatzen da.

Seigarrena.- Dirusarreraren arabera, prezio murrizketa batzuk daude. Dirusarreraren kopurua urtero aldatzen ez egoteko, LGSri (gutxieneko soldata) erreferentzia egitea proposatzen da:

-	BIZIKIDETZA UNITATE OSOKO DIRUSARRERAK URTEAN			
Bizikidetza unitateko kide kopurua / Número de miembros de la unidad convencional	0-LGS	LGS -1,2 *LGS	1,2 *LGS - 1,4 *LGS	1,4 *LGS - 1,55 *LGS
1-2	%80	%60	%50	%0
3	%90	%70	%60	%25
4 o más	%95	%90	%90	%60

KONTUAN HARTURIK

- Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarilaren 11ko 2/1990 Foru araeuan honakoa xedatzen da:

Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

- Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak.*
- Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.*
- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU**:

LEHENA.- Hasierako onespena ematea ebazpen-proposamen teknikoan ageri diren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren (2025ORFI0010 espedientea) aldaketa hauei:

Lehena.- Prezio publikoen 3.1.6 eranskina (Musika Eskola) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %3,23 igotzea
- Baja eskaeren aurrean, aldaketak
- Ordainketa epeak aldatzea
- LGSri erreferentzia egitea prezio murrizketetan

Bigarrena.- Prezio publikoen 3.1.7 eranskina (Kultur tailerrak) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %3,23 igotzea
- Baja eskaeren aurrean, aldaketak
- Artikulu berri bat sartzea: taulan aurreikusitako ikastaroen iraupena aldatuz gero, proportzionalki likidatzea.
- LGSri erreferentzia egitea prezio murrizketetan

Hirugarrena.- Prezio publikoen 3.1.8 eranskina (euskaltegia) aldatzea, goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %3,23 igotzea
- C2 mailarako aparteko tarifa sortzea (%50 handiagoa)
- Ordainketa epeak aldatzea
- Baja eskaeren aurrean, aldaketak
- HABEren hitzarmenpeko ikasleei dagokienez, HABEren ebazpenari egitea aipamena.
- 7. Artikulua kentzea
- LGSri erreferentzia egitea prezio murrizketetan

BIGARRENA.- Erabaki hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako eta hura betetzeko, hogeita hamar egun balioduneko epean azalduko da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek aipatutako espedientea aztertu ahal izango dute, Idazkaritza Nagusiaren eta Udal Kontu-hartzailetzaren bulegoetan, eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurrean ikusgai dagoen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, osoko bilkuraren erabaki hori behin betikotzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. in fine artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, jendaurrean jarriko da udaleko iragarki-taulan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, informazio-ondorioetarako, bai eta Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan ere (<https://www.tolosa.eus>).

Aldaketa hau indarrean jarriko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igarotakoan.”

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2025eko apirilaren 16an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Patxi Amantegi Zubiria,

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Hasierako onespena ematea ebazpen-proposamen teknikoan ageri diren prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren (2025ORFI0010 espedientea) aldaketa hauei:

Lehena.- Prezio publikoen 3.1.6 eranskina (Musika Eskola) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %3,23 igotzea
- Baja eskaeren aurrean, aldaketak
- Ordainketa epeak aldatzea
- LGSri erreferentzia egitea prezio murrizketetan

Bigarrena.- Prezio publikoen 3.1.7 eranskina (Kultur tailerrak) aldatzea goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %3,23 igotzea
- Baja eskaeren aurrean, aldaketak
- Artikulu berri bat sartzeari: taulan aurreikusitako ikastaroen iraupena aldatuz gero, proportzionalki likidatzea.
- LGSri erreferentzia egitea prezio murrizketetan

Hirugarrena.- Prezio publikoen 3.1.8 eranskina (euskaltegia) aldatzea, goran aipatutako aldaketekin:

- Prezio publikoak %3,23 igotzea
- C2 mailarako aparteko tarifa sortzea (%50 handiagoa)
- Ordainketa epeak aldatzea
- Baja eskaeren aurrean, aldaketak
- HABEren hitzarmenpeko ikasleei dagokienez, HABEren ebazpenari egitea aipamena.
- 7. Artikulua kentzea
- LGSri erreferentzia egitea prezio murrizketetan

BIGARRENA.- Erabaki hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako eta hura betetzeko, hogeita hamar egun balioduneko epean azalduko da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek aipatutako espedienteaz aztertu ahal izango dute, Idazkaritza Nagusiaren eta Udal Kontu-hartzailetzaren bulegoetan, eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurrean ikusgai dagoen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, osoko bilkuraren erabaki hori behin betikotzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. in fine artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, jendaurrean jarriko da udaleko iragarki-taulan, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, informazio-ondorioetarako, bai eta Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan ere (<https://www.tolosa.eus>).

Aldaketa hau indarrean jarriko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako 15 egun balioduneko epea igarotakoan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du prezio publikoen aldaketa.

3. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko apirilaren 16ko irizpena.

IKUSIRIK

2025ean jarraian zehazten den faktura jaso da eta 2023 ekitaldiko faktura data du, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	ESPEDIEN- TEA SAREKO	KONTZEP- TUA	KOPURUA
2025/02/18	2023/12 /31	E.S Arriaran, S.L.	1512	2025-FAKT- 768	Gasolina	510,44

Aipatutako fakturak dagokion sailaren oniritzia jaso zuen 2025eko martxoaren 17an.

KONTUAN HARTURIK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin.

Aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2024ko abenduaren 31an goran aipatutako fakturari dagozkion obligazioak onartu gabe zeuden eta 2025eko aurrekontutik onartuko dira.

Faktura hori onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio.

Beraz, honako hau

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko apirilaren 16an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

- **Aldeko bozkak:** Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Patxi Amantegi Zubiria.

Beraz, aho batez, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Itxitako ekitaldiko faktura hau onartzea:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	ESPEDIEN- TEA SAREKO	KONTZEPTUA	KOPURUA
2025/02/18	2023/12/ 31	E.S Arriaran, S.L.	1512	2025-FAKT- 768	Gasolina	510,44

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du itxitako ekitaldiko fakturak.

4. 01/2025 KREDITU-ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU TXERTAKETEN MODALITATEKOA.

01/2025 Kreditu txertaketen modalitateko kreditu-aldaketaren berri eman da. 2025/877 Alkatearen dekretuak honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, hain zuzen ere 01/2025 kreditu aldaketari dagokiona, kreditu txertaketen modalitatekoa, eta 2025AUKA0001 zenbakiduna.

Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 32.6 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	330.195,81
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	323.995,94
6	INBERTSIO ERREALAK	487.656,42
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	1.152.000,00
TXERTATUTAKO GERAkinAK GUZTIRA		2.293.848,17

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	2.293.848,17
FINANTZAKETA GUZTIRA		2.293.848,17

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

HIRUGARRENA.- Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da aurrekontua likidatu arte.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean gertu dira.

ESKU228c4f87-7f98-4ac6-8a61-b31dd33eed4f

5. 02/2025 KREDITU-ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.

02/2025 Kreditu gaikuntzaren modalitateko kreditu-aldaketaren berri eman da.

2025/04/24ko 2025/1240 Dekretua eta 2025/04/30eko 2025/1274 dekretu zuzentzailearen bitartez,

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2/2025 kreditu aldaketa.

Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	105.350,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		105.350,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	105.350,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		105.350,00

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean gertu dira.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Besterik gabe, 18:00etan, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, Udal idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

UDAL IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IPLE0004-2025/04/30eko akta/2025/040/30eko akta ()